

## UDAL EUSKARA BATZORDEA: *Administrazioaren eta herri mugimenduaren lokarri*

**E**lgoibarko Udaleko Euskara Batzordea Elgoibarko Izarraren inizatibaz jarri zen martxan 1987. urtean. Ordura arte, euskarari lotutako gaiak Kultura Batzordean aztertzen eta erabakitzen ziren. Baina, Kultura Batzordean euskara azken gaia izaten zen; azken orduan eta presaka aztertzen ziren, gehienetan, euskarari lotutako gaiak.

Egoera honen aurrean, eta 87ko Udal Hauteskundeak berehala zirela aprobetxatuz, Elgoibarko Izarra herriko alderdi politikoekin jarri zen harremanetan eta Udal Euskara Batzordea sortzeko proposamena luzatu zien. Hiru-lau hilibeteko negoziazio lanak izan ziren, baina oso harrera ona izan zuen Elkartearen proposamenak. Alderdi politiko guztiak azaldu ziren Udal Euskara Batzordea sortzearen alde.

Hala, 1987an, Udalbatza berriarekin batera, Udal Euskara Batzordea osatu zen Elgoibarren. Batzordearen zeregin nagusia euskararen normalizazioari administrazioetik eragitea zen.

Hasieran politikoei eta udaleko itzultzaileak osatu zuten batzordea. Juan Mari Mendizabal izan zen lehen batzordeburua, baina oso denbora gutxi egin zuen karguan. Ondoren, Jose Antonio Garitagoitiak, Basuetak, bete zuen kargua, baina honek ere ez zuen luzaroan iraun. Azkenik, Juan Mari Eguren jarri zuten Euskara Batzordeko buru.

Hasieran teknikaririk gabe hasi ziren lanean, eta 1988ko lehen hilabeteetan, teknikari bat kontratatzea erabaki zen Batzordearen dinamikari eragiteko. Kristina Zuazubizkar aukeratu zuten, eta berak segitzen du gaur egun ere.

Estreinako urteetan Elgoibarko Izarrak oso paper garrantzitsua bete zuen Batzordean. Herriko ikastetxeekin eta beste erakunde batzuekin batera, Elgoibarko Izarrak buru-belarri jardun zuen lanean Euskara Batzordean. Gerora, 91n Elkarrekin bigarren etapari ekin zionean, Euskara Batzordean lan egiteari laga egin zion eta Elkartearen sendotzeari eman zion lehentasuna.

Bigarren etapan bi erakundeok izan duten, eta daukaten, harremana benetan ona izan da. Hainbat proiektu elkar-lanean prestatu eta burutzeaz gain, urtero-urtero lankidetzak hitzarmena sinatzen dute Elkartearen jarduna diruz laguntzeko. Elkarteko esanetan, benetan estimatzea da Udalak Elkarteari eskaintzen dion laguntza eta babes ekonomikoa.

*1987ko Udal Hauteskundeak berehala zirela aprobetxatuz, Elgoibarko Izarra herriko alderdi politikoekin jarri zen harremanetan. Alderdi guztiak azaldu ziren Udal Euskara Batzordea sortzearen alde.*



Udal Euskara Batzordea Elgoibarko Izarraren inizatibaz sortu zen 1987an.



Elkartek eta Udalak urtero sinatzen dute hitzarmena Elkartearen jarduerak finantzatzeko.



Udalaren inplikazioa derrigorrezkoa da Elkartearen jardunari eusteko.